



BIDEZKO MERKATARITZAREN MUNDUKO EGUNAREN MANIFESTUA

2025eko maiatzak 10

Bidezko merkataritzak on egiten dio mundu osoari

Gaur, maiatzeko bigarren larunbatero bezala, bat egiten dugu Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguna ospatzen duten 50 herrialde baino gehiagorekin.

Gure Mundu Egunean, kezkatzen gaituzten bidegabekeriak eta erronka globalak agerian utzi nahi ditugu: gaur egun, 700 milioi pertsona baino gehiago bizi dira muturreko pobrezian. Izan ere, gosea pasatzen duten pertsonen kopurua duela 15 urtekoa baino handiagoa da.

Larrialdi klimatikoak ere kezkatzen gaitu. Haren ondorioak gero eta suntsitzaileagoak eta ohikoagoak dira.

Arazo global horiek hainbat arrazoi dituzte, baina, zalantzarik gabe, egungo ekoizpen- eta kontsumo-eredua da nagusietako bat. Adibidez, ehungintza da kutsatzaileenetako bat, CO2 isuri guztien % 10 eragiten baitu. Gainera, hor lan egiten dutenen soldata, gehienak emakumeak eta Bangladés bezalako Asiako herrialdeetakoak, soldata duina izatetik oso urrun dago.

Horren guztiaren aurrean, enpresek, gobernuek eta nazioarteko erakundeek zeregin erabakigarria dute. Horregatik, Europar Batasunean ikusten ari garenaren moduko lege-alderdietan eta proposamen politikoetan izandako atzerapausoek kezkatzen gaituzte. Larrialdi klimatikoaren aurreko konpromisorik ezak eta irabazi ekonomikoak eta enpresen eskakizunak giza eskubideen eta planetaren babesaren aurretik jartzen dituzten erabakiek kezkatzen gaituzte.

Baina kontsumitzaileok ere zeregin garrantzitsua dugu. Egunerokoan erabiltzen ditugun produktuei buruz hartzen ditugun erabakiei esker, mundu errespetuzkoagoa, bidezkoagoa eta iraunkorragoa lortzen lagun dezakegu. Bidezko Merkataritzak giza eta lan-eskubideak errespetatzen ditu eta

ingurumena babesten du. Horregatik diogu bidezko merkataritzak on egiten diola mundu guztiari.

Horregatik guztiagatik, gaur gogoratu nahi dugu Bidezko Merkataritzako produktu bat dagoela eguneko une bakoitzerako.

Sartu! BIDEZKO MERKATARITZAREN MUNDUKO EGUN ZORIONTSUA!

2025 Bidezko Merkataritzaren Munduko Egunaren kanpainak honako finantzaketa hau du:

